AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

205

1844/2011 EBAZPENA, abenduaren 12koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 21eko 1785/2011 ebazpena, mediku kategorian (familiako medikuen lanpostu funtzionala) lotura estatutarioa lortzeko hautatze-probetarako kalifikazio epaimahaia izendatzen zuena aldatzen da.

Indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenen arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 21eko 1785/2011 ebazpena, mediku kategorian (familiako medikuen lanpostu funtzionala) lotura estatutarioa lortzeko hautatze-probetarako kalifikazio epaimahaia izendatzen zuena, aldatzea. Hona hemen aldaketak:

a) Ana Isabel Izaguirre andrea, lehenengo bokal titularra izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) Leticia Isla Baranda andrea lehenengo bokal titularra izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 12a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.